

MOZIOA: ETXEBIZITZA PARKE PUBLIKOA SUSTATZEKO NEURRIAK HARTZEKO PROPOSAMENA

Espainiako Kongresuak onartutako Etxebizitzari buruzko 12/2023 Legeak Estatuaren eskumenekoak diren gaiak arautzen ditu. alderdi oso zehatzetan izan ezik, Lege horrek argi eta garbi gainditzen ditu autonomia-erkidegoek eta, zehazki, Euskadik dituzten eskumenak.

43 urtetan, Euskadik ASKATASUNEZ hartu ahal izan ditu bere erabakiak etxebizitza-politiketan, Autonomia Estatutuarekin eta Etxebizitzaren Euskal Legearekin, eta horren ondorioz:

- Euskadik etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortu du (eskubide hau izango dute etxebizitza duin eta egoki bat eskuratzeko beharrezko baliabide ekonomikorik ez dutenek)
- Aspalditik erabaki genuen baliabide publikoak alokairura bakarrik bideratzea.
- 2003az geroztik, babes ofizialeko etxebizitza publiko guztien kalifikazio iraunkorra ezarri duen erkidego bakarra gara. Horrek esan nahi du, Babes Ofizialekoak diren etxeak, BETI izango direla Babes Ofizialekoak.
- Udalekin batera, babestutako etxebizitzetarako lurzoru-erreserbak bultzatzen ditu Eusko Jaurlaritzak, egoera ahulean dauden kolektiboentzat: pertsona kalteberak, gazteak, baliabiderik ez duten pertsonak, adinekoak, ezintasunen bat dutenak, etab.
- Hilean GAZTELAGUN programaren bitartez, 300 €-ko diru-laguntzak ematen dira gazteentzako etxebizitzak alokatzeko.
- 35.000 familia inguruk alokairua ordaintzeko laguntza edo prestazioren bat jasotzen dute.
- Alokairuaren merkatuko bitartekaritza-tresnak, Etxebide, 7.000 etxebizitza huts alokairura mugiaraztea lortu du.

Etxebizitza-politikaren arloan ditugun eskumen eksklusiboak askatasunez erabili gabe, neurri horietako asko ez lirateke existituko edo oso baldintzatuta leudeke; izan ere, 12/2023 bezalako Lege batek trabak ezarriko lizkiguke herritarren arazo zehatzei erantzun nahi dieten politika horiek garatzeko.

Gainera, uste dugu Estatuak Lege horrek ez duela etxebizitzarik sortzen, eta ez dizkiela alokairuei mugak edo topea jartzen. Urteko hazkundea itxuraz kontrolatzera eta milaka etxebizitza "sustatzera" mugatzen da, konpromiso horietarako finantzaketarik zehaztu gabe.

Guzti horregatik, udalbatza honi hurrengo hau onartu dezan proposatzen diogu:

- 1.- Udalak Espainiako gobernuari, Euskadiko Erkidego autonomoaren eskumenak errespetatu ditzala eskatzen dio.
- 2.- Espainiako gobernuari eskatzea beharrezko legezko neurriak har ditzan, Euskadik alokairuaren prezioak kontrolatzeko neurriak ezartzeko, Euskal Legebiltzarrean azaldutako konpromisorekin bat etorriz.
- 3.- Udal gobernuak, 2020ko uztailean burutu zen Tolosako etxebizitza hutsen diagnostikoa eta herritarren etxebizitza-premiaren gaineko azterketa eguneratu dezala, besteak beste eta hala balegokio, gune tenkatuak izendatuz.

4.- Eusko Jaurlaritzako etxebizitza departamentuarekin elkarlanean, gure herrian alokairuzko etxebizitza publikoak eraikitzeko helburuarekin pasa den legegintzaldian erabaki ziren neurriak gauzatu ditzala udalak, besteak beste:

- Duela bi urte sinatutako Alokabide eta udalaren arteko hitzarmenari behar besteko zabalkundea ematea, herritarrei alokairurako aukerak irekitzeko eta etxebizitza hutsak merkaturatzen laguntzeko.
- Alokairurako dirulaguntzen deialdia argitaratu dezala berriro, honako hauei zuzendua: jabetzan etxebizitzarik ez duten 18 eta 35 urte (biak barne) bitarteko adina duten gazteei, banandu, dibortziatu, desagertutako izatezko bikoteei eta guraso bakarreko familiei, eta alokairu erregimenean etxebizitza batean dauden 70 urtetik gorako pertsoneri, besteak beste
- Etxebizitza hutsak alokairuan jar daitezen lortzeko dirulaguntza osagarriak eman ditzala udalak, pasa den legegintzaldiko deialdia berriro argitaratuz, etxebizitzek bizigarritasun baldintzak bete ditzaten
- Etxebizitza hutsen jabeekin lanketa pertsonalizatua egiteko aukerak aztertu ditzala udalak, hutsik izateko arrazoiak, alokairuan jartzeko aukerak eta abar... aztertu eta lantzeko.
- Etxebizitza babestuen parkea handitzeko neurriak hartzen jarraitu dezala udalak (esate baterako, Amarotzen eta Lurramendin, 111 eta 15 babestutako etxebizitza hurrenez hurren), etxebizitza babestu horiek alokairura bideratuz.
- Pasa diren legegintzaldietan abiatutako ildoari jarraitu diezaiola, etxebizitza tasatu, babestu eta alokairua sustatuz, besteak beste: Kondeaneko Aldapako alokairuzko 11 etxebizitza, Euskal Herria plazako gazteentzako bizitokiak., Agaramundu 7 eraikineko alokairuzko 25 etxebizitza, Larramendi auzoko 310 etxebizitza babestu eta tasatuak, Berazubiko etxebizitza tasatuak ...

5.- Udalak bere esku dauden neurriak martxan jar ditzala, aurreko puntuan adierazitako lan ildo guzti horiek aurrera eramateko, eta horretarako beste askoren osagarri izango diren bi neurri har ditzala urgentziaz:

- Gaurko udalbatzan erabaki den moduan, hutsik dauden etxebizitzetako Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga %50etik %100eko erretegia pasaz.
- Etxebizitza azpisaila, behar besteko giza-baliabideez hornitzea, goian aipatutako helburuak lortu eta zehaztutako eginkizunak bete ditzan.
- UDATEN ireki zen eta jadanik bi hilabetez itxita dagoen "Etxebizitza Bulegoa" berriro ireki dezala udalak, aurreko puntuan aipatutako giza-baliabideez berriro hornituz, herritarrei etxebizitzaren inguruan informazio zuzena, gertua eta eraginkorra eman diezaien.